

Europar Batasunaren noraeza

Erromako Itunaren 60. urteurrenarekin Europako Batzordeak Europaren etorkizunari buruzko liburu zuria aurkeztu zuen, 2025. urterako balizko agertokien inguruko eztabaida zabaltzeko asmoz.

Europar Batasunaren (EB) egoera kritikoaren aurrean liburu zuriaren erretorika autokonplazienteak ez dio aukera txikiena ere ematen, orain arteko bidean izandako huts egiteen eta erabaki okerren diagnostikoa egin eta horiek gainditzeko mekanismoak eztabaidatzeari. Testuaren esanetan, “gure lorpenen inguruan harrotasunez hausnartzeko unea da”. Egia da EBk XX. mendearen lehen erdira arteko barne gatazka historikoak apaldu dituela eta hau balioetsi egin behar dela. Baina, horretara iristeko ez zen derrigorrezkoa kalitate eskaseko eraikuntza instituzionala lehenestea edota euroari bide emateko Maastrichteko itunaren irizpide liberalak kontrapisu sozialik gabe bideratzea. Austeritate politikak kaltetutako langabeak eta prekariatu gazteak, memorandum batetik bestera burua atera gabe zorpetuta jarraitzen duten greziar herritarrak, gizarte zerbitzuen kalitatearen galerak kaltetutakoak, soldaten jaitsiera orokorra nozitu duten Europako hegoaldeko herritarrak edo pobrezia atariaren azpitik dagoen Alemaniako herritarren bostenak, eta abar ez dira, hain zuzen ere, lorpen gisa aurkeztu daitezkeen emaitzak.

Liburu zuriaren sarreran aipatzen da “gure ekonomia munduko finantza krisia gainditzen” ari dela. Diagnostikoa ezin okerragoa da, eta abiapuntu honetatik zaila da etorkizuneko agertokien inguruko eztabaida era egokian ematea. Izan ere, hazkunde ekonomiko ahula eta oso disparekoa ez da krisiaren irteeraren bermea. Aitzitik, 2008ko finantza leherketarako oinarriek bere horretan dira eta EBaren politikek ez dute



Mikel Zurbano

EHU-KO IRAKASLEA

Liburu zuriaren sarreran aipatzen da “gure ekonomia munduko finantza krisia gainditzen ari dela”. Diagnostikoa ezin okerragoa da, eta abiapuntu honetatik zaila da etorkizuneko agertokien inguruko eztabaida era egokian ematea. Izan ere, hazkunde ekonomiko ahula eta oso disparekoa ez da krisiaren irteeraren bermea

lortu horiek gainditzeko. Bestalde, liburu zuriaren arabera, EBak aurrera egin du integrazio mailan, kohesioan eta ongizatean. Aipamen xume bat ere ez dago gizarte eta produkzio arloko disparekotasunen igoeraz. Gainera, desberdintasun horiek handitzearen arrazoi nagusia, batik bat, krisiaren hasieratik EBak indarrean ipini dituen austeritate politikak eta zerga politika atzerakoiak dira, Oxfam-en *Europa gehiengoarentzat, ez eliteentzat* goiburua duen azken txostenak erakusten duen bezala.

Beste hainbeste aipamen kezkarriekin batera liburu zuriak onartzen du ez direla ondo azaltzen EBren parte izatearen hobariak bertako arkitektura instituzional konplexua ulertzea zaila delako. Bruselako eurokrazia itxia eta jendearen arteko distantzia onartzen da, baina horren zioa ez da komunikazio arazoa baizik eta EBren diseinu instituzionala bera zeina korporazio handien menpekoa den. Izan ere, enpresa handi horien lobbyek elkartearen agenda baldintzatzeko gaitasuna dute. Europar Batasunaren eraikuntza honekin berari emandako subirautea mailak demokrazia galera dakar, CETA edo TTIP gisako akordioek erakusten duten legez, hauek korporazioen boterearen esanetara jarritako benetako konstituzioak baitira.

Liburuaren ondorioetan etorkizunerako bost agertoki plazaratzen dira. Krisiak adierazten duen erronkaren aurrean bost agertokien lerroek lehengo lepotik burua esamoldea betetzen dute. Horrela, europar proiektuaren porrota ontzat ematen da eta epe laburreko irtenbide antzua lehenesten da kasurik baikorrena plazaratzen duen *Elkarrekin gehiago egin* azken agertokian. Bertan Europa gehiagoren leloaren atzean ez dago zantzu txikiena ere austeritate politikak alboratzeaz, ezta ere instituzioak demokratizatzeaz edo berdintasun sozialaren beharraz. ■